

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA  
ANDER PRADOS OTAMENDI  
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA  
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

IGOR OTERMIN EGUIA  
NEREA YEREGUI BALDA  
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

### **IDAZKARIA**

Joanes Aleman Olló

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko irailaren 12an eguerdiko ordubata denean, Lorenzo Zubillaga Goicoechea jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Olló idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Bilkura, horretarako egindako aurretiazko deialdia egin eta gero egin da, honen iragarkia Udaletxeko iragarki oholean deialdia eta gai zerrenda ezarririk egin delarik

Ezohikoa eta premiazkoa, eta lehendakaritzak publiko deklaraturiko bilkura irekirik eta hasteko beharrezkoa den asistentzia quoruma idazkariak egiaztatu duelarik, gai zerrendaren hurrengo gai honi ekinen zaio:

## **1. BATZARRAREN PREMIAZKOTASUNAREN ONARPENA**

Toki Erregimenaren oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.b) artikuluekin eta Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legearen 78.1. artikuluekin bat, akordioa hartzeari ekin baino lehen, Alkateak bilkuraren premiazkotasunaren berrespena udalbatzara ekarri du.

Beteluko Kastabal, Lulota eta Aitzondo parajeetako baso aprobetxamendua lehenbailehen egin beharra dago, eguraldi onarekin egin behar baita. Horrela justifikatzen da bilkuraren premiazkotasuna.

Premiazkotasunaren berrespena Udalbatzak bozkatzera ekarri eta bertaratu direnek aho batez onartu dute.

## **2. KASTABAL, LULOTA ETA AITZONDO PARAJEETAKO MENDI APROBETXAMENDUAREN ESLEIPENA**

Nafarroako Gobernuko Baso Zerbitzu eta Ehiza Kudeaketako zuzendariaren maiatzaren 31ko 106/2024 Ebazpenaren bidez, baimena eman zen Beteluko herri-mendiko Kastabal, Lulota eta Aitzondo parajeetaan baso-ustiapena egiteko. Lotea honako hauek osatzen dute:

Lotea honako hauek osatzen dute:

<b>LOTEA</b>	<b>ESPEZIE</b>	<b>OIN KOPURUA</b>	<b>BOLUMEN OSOA</b>
Bakarra	Haritz amerikarra oin zurgai	421	1.013,6
Bakarra	Haritz amerikarra zurezko oinak	143	54,4
Bakarra	Hemengo haritza	35	48,4
Bakarra	Pagoa	35	61,2
<b>Oсотara</b>		<b>634</b>	<b>1.177,6</b>

Baso-aprobetxamendu hori behin-behinean esleitzeko eraturako kontratazio-mahaiak egindako proposamena ikusi da.

Sesta-denbora igaro ondoren, izandako eskaintza ez da hobetu.

Administrazio klausulen pleguaren 10. Puntuan ezarritako dokumentazioa aurkeztu du Basalan Arrospide S.L.k.

Bilkuran dauden kideek aho batez erabaki dute:

LEHENENGOA. Kastabal. Lulota eta Aitzondo parajeetako baso-aprobetxamendua honako honi behin betiko esleitzea:

Esleipenduna: Basalan Arrospide S.L.

NAN/IFZ: B-20830915

Lotea: Haritz amerikarraren, hemengo haritzaren eta pagoaren baso-aprobetxamendua Kastabal, Lulota eta Aitzondo inguruan.

Esleipen prezioa: 53.750,00 euro. (BEZik gabe)

Baldintza teknikoen eta ekonomiko-administratiboen pleguetan ezarritako baldintzak betez.

BIGARRENA. Alkateari ahalmena ematea kontratua eta kontratutik eratorritako agiri guztiak sinatzeko eta formalizatzeko.

- Esleipenaren akordioa jaso eta ondorengo hamar egunetan esleipen aurrekontuaren %4eko behin betiko bermea ezarri izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du Beteluko Udalean (2.150 euro).

- Lanak hasi aurretik, aipatutako baso-aprobetxamenduak eragindako Beteluko bideak eta pistak erabiltzeko eskaera egin beharko du Udalak.

HIRUGARRENA. Esleipenaren eraginkortasuna eten egingo da hamar egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita, bidalketa hori bitarteko elektronikoen bidez egiten bada, edo hamabost egun naturaleko epean, bidalketa bitarteko ez elektronikoen bidez egiten bada.

Goizeko ordubata eta berrogei direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.